



Lagun hori,

HEIZE (Sarean-BIHE) eta EHIGE 2019-2020 ikasturtearen hasiera honetan gure ikastetxeetako kontu hurbiletatik haratago hezkuntza-berrikuntzaren begirada zabaltzeko aukera izango dugu irailaren 26-ko ekitaldian. “Gaur eta biharko hezkuntza erronkak” ekitaldian azken 3 urteetan lanean aritu den EEPGB (Euskal Eskola Publikoa Gaur Bihar) hausnarketa lan taldearen emaitza aurkeztuko da.

Jakina dira Euskal Hezkuntza Sistema zein gizarteak orokorrean aurretik dituen erronka handiak, berrikuntza, ekitatea, digitalizazioa, euskalduntzea, kulturartekotasuna, inklusibitatea, parte-hartzea eta abar. Horiek guztiek justizia sozialaren ikuspegian oinarri hartuta ekitatiboa bezain arrakastatsua izango den sistema baten alde guztiok elkar hartuta bidea egin beharra dugula sinistuta gaude.

Euskal hezkuntza sistemaren bilakaeran esperientzia zabaleko kideen ekarpenekin batera orain arte eginiko bidearen indargune eta gabezien diagnostiko zuhur batean oinarri hartuta aurrera begirako Euskal Eskola Publikorako kalitatearen berrikuntza eta eraldaketa proposamenak zabaldu nahi ditugu ekimen honetan.

Espero dugu zuen interesekoa izatea eta izen ematea animatzen zaituztegu.

Adeitasunez,

Iñigo Salaberria  
(HEIZE-ko presidentea)